

BASKEPENSIONES BGAE INDIBIDUALA

BASKEPENSIONES HORIZONTEA 2025 PLANA

INBERTSIO-PRINTZIPIOEN ADIERAZPENA

I. PRINTZIPIO OROKORRAK

Inbertsioak aukeratzean, kontuan hartuko dira estatutuak, erregelamenduak eta indarrean dauden lege-xedapenak.

Baskepensiones BGAE Indibidualaren aktiboak inbertitzean, bazkide arrunten eta onuradunen interesari soilik begiratuko zaio, eta inbertsioak Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundearen (ELGA) merkatu antolatuetan egingo dira nagusiki.

Inbertsioen kudeaketa kualifikazio eta esperientzia profesional egokia duten pertsonen esku utziko da.

Aktiboen inbertsioa irizpide jakin batzuen arabera egingo da: segurtasuna, errentagarritasuna, likidezia, dibertsifikazioa, sakabanaketa, diru-kongruentzia eta epeak. Aktiboek behar adinako dibertsifikazioa izango dute, aktibo batekiko, jaulkitzaile batekiko edo enpresa-talde batekiko gehiegizko mendekotasuna saihesteko, eta kontrako alderdiaren arriskua dibertsifikatzeko arazoizko politika bat edukiko da beti.

Baskepensiones BGAE Indibidualak bere inbertsioetatik erarortzen diren ondasunen eta eskubideen gaineko titulartasuna edukiko du, eta horiek libre erabili ahal izango ditu.

II. INBERTSIO-PROFILA

Erakundea planetan banatuta dago. Plan bakoitzak bere inbertsio-profila du, Gobernu Batzordeak aldatu ahal izango duena.

Baskepensiones Horizontea 2025 Planak, hain zuzen, merkaturatze-aldiaren hasieran (2014ko urriaren 15etik 2015eko urtarrilaren 30era) ekarpenak egiten dituzten eta errentagarritasun hori lortzeko zehaztutako aldia mugaeguneratu arte (2025eko uztailaren 30a) euren ekarpenei eusten dieten bazkideei eskainitako errentagarritasun-helburu ez-bermatuari aurre egiteko asmoz, dagozkion aktiboetan inbertituko du bere ondarea.

III. GEI POLITIKA INBERTSIOAN

BASKEPENSIONES BGAE INDIBIDUALAK dio gizarte-, ingurumen- eta gobernu korporatiboaren arloko jardunbide iraunkorrak erabiltzeak aukera ematen diela erakundeei aurrera egiteko, irauteko eta epe luzera errendimenduak maximizatzeko. Horregatik, interesgarria da BGAEk

jardunbide horiek kontuan hartzea inbertsioak gauzatzeko orduan, bere bazkideentzako emaitzen kalitate handiagoa lortzeko.

BGAEn inbertsio arduratsuko irizpideak, oro har onartutako nazioarteko arau, hitzarmen eta itunetan oinarritzen dira, batez ere Nazio Batuen Erakundearen esparruan. Testuinguru horretan, BGAEn nahia da bere inbertsioaren xede diren erakundeek honako printzipio hauek betetzea eta sustatzea beren jarduera-esparruetan:

- Giza Eskubideak errespetatzea
- Ingurumena zaintzea
- Gobernu onaren politikak egitea

Inbertsioak egiteko, jaulkitzailearen ebaluazioa egingo du munduko erreferentziako funts handiek adostutako kanpo uzteak kontuan hartuta, kanpo uztearen arrazoiak argitaratzen dituztenei eta esparru horretan ibilbide luzea dutenei bereziki erreparatuz, eta betiere kontuan hartuz BGAEn irizpideek erreferentziako funts horien irizpideekin duten antzekotasuna edo bat-etortzea.

Politika hori zuzeneko inbertsioaren diru-zorroari (errenta finkoa eta errenta aldakorra) aplikatuko zaio eta, Inbertsio Kolektiboko Erakundearen bidezko inbertsioan, BGAek modu kualitatiboan sartuko du gizartearen aurrean erantzulea den inbertsioaren erakunde kudeatzailearen politikari buruzko informazioa inbertsioa aztertzeke prozesuan.

Printzipio horiek betetzen diren ebaluatzeke, BGAek aldiro-aldiro aztertuko du inbertsio-zorroek lehen aipatutako irizpideak eta printzipioak betetzen dituzten ala ez.

IV. INBERTSIORAKO EGOKIAK DIREN AKTIBOEN DESKRIBAPENA

Errenta Finkoko inbertsioak bi modutara gauzatuko dira: zuzenean, jaulkipenen bidez, edo zeharka, IKEen bidez. Errenta finkoko inbertsioak publikoak eta pribatuak izango dira, kaudimen handiko jaulkitzaileek egingo dituzte eta gehienak eurotan izendatuta egongo dira. Errenta Finkoko aktiboek dagokienez, aktiboak modu estrategikoan banatuko dira, Erakundeak dituen konpromisoen izaera zein iraupenarekin bat etorrita.

Era berean, Errenta Finkoko inbertsioen artean, kreditu-erakundeetako gordailuetan inbertitzea aurreikusi da, bai ageriko gordailuetan bai eperakoetan.

Errenta Aldakorreko inbertsioak IKEen akzio eta partaidetzetan gauzatuko dira. Bide beretik, Errenta Aldakorreko inbertsioaren mugaren barruan, goranzko joera duen Errenta Aldakorrean inbertitzeko aukera aurreikusi da.

Aldez aurretik Erakundeko Gobernu Batzordearen baimena izanik, Errenta Aldakorraren eta Errenta Finkoaren **Aktibo Alternatiboetan** inbertitzea aurreikusi da, batez ere, honako hauetan: Hedge-Funds, Arrisku Kapitaleko Fondoak eta Higiezinaren Sektorereko Fondoak; betiere, bestelako aukerak baztertu gabe.

Erakundeak operazioak egin ahal izango ditu deribatuen merkatu antolatuetan negoziatutako **finantza-tresna deribatuekin**, estaldura- eta inbertsio-helburuak betetzeko. Gainera, deribatuen merkatu antolatuetan kontratatatu ez diren finantza-tresna deribatuek erabiltzea

aurreikusten du Erakundeak, estaldura- eta inbertsio-helburuak betetzeko. Azpikoei ez zaizkie alde zuzen mugak jartzen; beraz, interes-tasen, kredituen, dibisen, errenta aldakorren, egituren edo beste batzuen gainekoak izan daitezke.

Erakundeko zorroaren baitan, tresna deribatuekin gauzatu beharreko eragiketa-mota bere azpikoaren izaeraren arabera erabakiko da.

Tresna Deribatu eta Egituratuarekin gauzatu beharreko Eragikerari buruzko Barne Eskuliburua dauka Erakundeak.

Bestalde, ez da baztertzeko merkatu arautuetan **negoziaziorako onartu ez diren** Errenta Finkoko eta Errenta Aldakorreko baloreetan inbertitzea; betiere, baldintza hauek betetzen badituzte: sozietate-egoitza ELGAko herrialde batean duten entitateek jaulkiak izatea; transmisio librea mugaturik ez izatea; euren finantza-egoerak ikuskatuta egotea; eta azkenik, inbertsioaren unean, auditoreak azken erreferentzia-ekitaldiari oniritzia emanda izatea.

Oro har, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen jardueraren inguruko jakin batzuen egikaritzeko modua arautzen duen maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretuaren 11. artikuluan zerrendatuta agertzen diren aktibo guztiak joko dira inbertsiorako egokitzat.

Eratutako zorroa, hain zuzen, honako hauek osatuko dute: EBko Estatu-kideek, Autonomia Erkidegoek, Tokiko Erakundeek, eta batik bat likidezia eta erakunde espainiarren Hipotekazedulek jaulki edo abalaturako errenta finkoko tituluek; nolahi ere den, beste errenta finko pribatu batean % 25era arte inbertitzeko aukera baztertu gabe, diru-merkatuko gordailuak eta tresnak barne.

V. INBERTSIOEI LOTUTAKO ARRISKUAK

Jarraian azaldutako arrisku-eraketariko bakoitzerako Erakundeak jarraipen egoki eta bilakaeraren kontrola egiteko prozedura bereziak dauka. Kasu batzuetan, horiei mugak jarriko zaizkie.

Erakundeak **Errenta Finkoko** aktiboetan inbertitzen du, eta horien balioa aldatzen doa, interes-tasen bilakaeraren arabera. Epe laburrerako aktiboetan ematen den merkatuko prezioaren aldaketan sentsibiltatea txikia da; epe luzean ematen dena, berriz, handia. Erakundeak sentsibiltate hori zenbatzen du, aldatutako iraupenaren bitartez.

Orokorrean, jaulkitzaile pribatuen Errenta Finkoko jaulkipenek publikoek baino kreditu-arrisku handiagoa dute. Hori dela eta, Errenta Finko pribatuko jaulkipenen gutxiengo kreditu-kalifikazioa mugatu egiten da. Jaulkipenen bat ez bada kalifikatu, jaulkitzailearen kreditu-kalifikazioa hartuko da kontuan.

Errenta Aldakorrean inbertitzearen ondorioz, Erakundearen errentagarritasunak inbertitutako merkatuen aldakortasunaren eragina jasan dezake; horregatik, merkatu-arrisku handia dauka.

Inbertsio Alternatiboek arrisku gehigarriak dituzte. Hala nola gardentasunik eza prezioaren eraketan; likidezia-arriskua; merkatu-arrisku gehigarria, palanka-efektuagatik; araudi-arriskua; eragiketa-arriskua; balioespen-arriskua; eta iruzur-arriskua, inbertsiorako erabiltzen diren IKEetako kontrol-sistemen ahuleziagatik aktiboak ostu daitezkeelako. Aktibo horiekiko esposizioa mugatuta murriztuko dira arriskuak.

Tresna deribatuetako inbertsioek eskura egindako inbertsioek ez dituzten bestelako arrisku batzuk daukate; izan ere, palanka-efektua eragiten dute eta, horren ondorioz, bereziki sufritzen dituzte azpikoaren prezio-aldaketak. Gainera, merkatu antolatuetan kontratatu ez diren tresna deribatuetan inbertitzeak beste arrisku gehigarri batzuk ere badakartza: esaterako, alderdien artean egongo den eta eragiketen emaitza bermatuko duen konpentsazio-ganberarik ez dagoenez, gerta daiteke kontrako alderdiak kontratua ez betetzea. Adierazi dugun moduan, Tresna Deribatu eta Egituratuarekin gauzatu beharreko Eragikerari buruzko Barne Eskuliburua dauka Erakundeak.

Halaber, **Aktibo Ez-kotizatueta**n inbertitzeak likideziarik gabe utz ditzake zenbait inbertsio. Gainera, aktiboaren balioa balioestean, arriskua sor dezake; Merkatuak ez baitu zuzenean hori zehazten. Aktibo horiekiko esposizioa mugatuta murriztuko da arrisku hori.

Euroa ez diren dibisetako aktibotan inbertitzeak arriskua dakar, truke-tasen gorabeheren ondorioz. Arrisku hori murrizteko, euroa ez diren dibisen bidez aktiboetan egindako inbertsioak mugatu behar dira.

VI. INBERTSIOEI LOTUTAKO ARRISKUAK NEURTZEKO METODOAK

Indarrean dagoen arautegiak berak jartzen dizkie zenbait muga inbertsioei. Hala ere, zenbait kasutarako, Baskepensiones BGAEk muga zorrotzagoak jartzen dizkio bere buruari, jarraian azalduko dugun moduan.

Errenta Finkoa:

Erakundeak Errenta Finkoko inbertsioen iraupenari buruzko aldizkako jarraipena egingo du. Hala ere, parametro horren gaineko mugarik ez du finkatuko, eta Plan honetarako modu dinamikoan xedatuko da, talde kudeatzaileak merkatuei buruz duen ikuspegiaren arabera.

Errenta Finkoan egindako inbertsioak aitortutako kaudimena duten aktiboetan zentratuko dira.

Inbertitzean, jaulkitzaile pribatuen Errenta Finkoko inbertsioen % 95ek nazioarteko aitortpena duen gutxienez agentzia batek jaulkitako kreditu-kalifikazioa eduki beharko dute, adibidez: Standard and Poors, Fitch, Moody´s eta beste. Era berean, inbertsioa egitean, agentzia guztiek aldi berean emandako kreditu-kalifikazioa Espainiako Erresumarena baino hiru maila apalagoa duten jaulkipenetan egindako inbertsioak ondarearen %25era mugatuko dira. Jaulkipenen bat ez bada kalifikatu, jaulkitzailearen kreditu-kalifikazioa hartuko da kontuan.

Erretan Finko publikoko aktiboetan egindako inbertsioetan ez da mugarik ezarriko Europar Batasuneko Estatu-kide batek, Autonomia Erkidego batek, Tokiko Erakunde batek edo Espainia kidea den Nazioarteko Erakundeek jaulkitako edo abalaturako baloreetarako.

Era berean, OTC gordailu eta deribatuak kontratatzean, muga horiek aintzat hartuko dira; eta aintzat hartuko dira, halaber, kontrapartiden kreditu-kalifikazioak. Hori dela eta, eragiketa horiek gauzatzean, muga horiek modu bateratuan aztertuko dira jaulkitzaileei eta kontrapartidei dagokienez.

Errenta Aldakorra:

Erakundeak arrisku hori murriztuko du, Planaren Errenta Aldakorrekiko esposizioari mugak jarrita.

Errenta Aldakorrekiko inbertsioek ez dituzte gaitutako Planaren ondarearen gainean ezarritako mugak. Muga horretan, beraz, zuzeneko inbertsioak, zeharkakoak (alegia, IKEen bidez egindakoak) eta inbertsio alternatiboak zenbatuko dira.

Errenta Aldakorrari buruzko atalaren barruan, Goranzko joera duen Errenta Aldakorrean egindako inbertsioak hartzen dira kontuan. Eta horiek ez dute Plan bakoitzaren ondarearen % 5 gaitutako. Muga horretan egongo da txertatuta, hain justu, soilik Merkatu horietarako inbertsio-bokazioa duten IKEetan egindako inbertsioa ere.

Inbertsio Alternatiboak:

Kontratatzean, Aktibo Alternatiboetan egindako inbertsioek ez dute gaitutako Planaren ondarearen % 3.

Tresna Deribatuak:

Errenta Aldakorraren barnean aurreikusitako aktiboekiko esposizioari, deribatutako tresnen bidez, ezarri beharreko bi muga daude, esposizio horren ikurraren arabera:

1. Ikurra negatiboa denean, Errenta Aldakorreko aktiboarekiko esposizio garbia (hau da, eskura egindako inbertsioa kontuan hartuz) ezin da posizio laburrean eman. Edo bestela esanda, tresna deribatuekin gauzatutako eragiketak ezin du gainditu eskura egindako inbertsioa.
2. Tresna deribatuekin gauzatutako eragiketak zeinu positiboa izaten badu, berriz, errenta aldakorreko aktiboarekiko esposizio osoak (hau da, eskura egindako inbertsioa batuz) ezin du gainditu errenta aldakorrerako ezarritako ondarearen gaineko muga.

Aktibo Ez-kotizatuak:

Aktibo ez-kotizatuak inbertsioak ez du gaindituko Planaren ondarearen % 20ko muga, edo uneko legediak finkatuko duen muga (hori txikiagoa balitz).

Euroa ez diren dibisetan izendatutako aktiboak:

Euroa ez diren dibisetan izendatutako aktiboetako inbertsioak ez du gaindituko Planaren ondarearen % 30.

Plan honen inbertsio-egitura, hain zuzen, indarrean dagoen legeriaren eta finkatutako errentagarritasun-helburuaren arabera diseinatu da. Honako arrisku-jarraipen hauek egingo dira:

Arrisku Mota	Neurketa-metodoa	Kontrol-prozedurak
Erakundearen globala	<ul style="list-style-type: none"> Ondarearen kuota-partearen balioespenaren aldakortasuna 	<ul style="list-style-type: none"> Aktiboen dibertsifikazioa. Aktibo-motaren araberako mugak. Aktiboen kalitate-eskakizunak.
Kreditu-arriskua	<ul style="list-style-type: none"> Errenta Finkoko zorroaren batez besteko kreditu-kalifikazioa 	<ul style="list-style-type: none"> Jaulkitzaileak dibertsifikatzea. Kreditu-kalifikazioaren eskakizuna.
Merkatu-arriskua	<ul style="list-style-type: none"> Merkatu-indizeak (Ibex 35 eta Eurostxx 50) kontuan hartuta, errenta aldakorrean egindako inbertsioaren bilakaera konparatua. 	<ul style="list-style-type: none"> Desbideratzeen analisiak, merkatu-indizeei dagokienez. Errenta aldakorrean egindako gehieneko inbertsio-ehunekoaren kudeaketa aktiboa.
Interes-tasaren arriskua	<ul style="list-style-type: none"> Errenta finkoko zorroaren gainbalio edo azpi-balioaren bilakaera. Errenta Finkoko zorroaren sentikortasunaren eta iraupenaren analisia. 	<ul style="list-style-type: none"> Interes-tasen kurben bilakaerarekin egindako konparazioa. Spread edo kreditu-diferentzialen aldaketa garrantzitsuenen analisia.
Likidezia-arriskua	<ul style="list-style-type: none"> Zehaztutako hileko eta urteko fluxuak (mugarik gabe), hileru eguneratu ahal direnak. 	<ul style="list-style-type: none"> Gutxienez ondarearen % 2aren ondoriozko beharretarako estaldura gehigarria.
Truke-tasaren arriskua	<ul style="list-style-type: none"> Euro-dibisa gurutzaketaren ondoriozko aldaketaren analisia. 	<ul style="list-style-type: none"> Estaldura-maila posibleen ezarpena, dibisaren forward jardueren bidez.
OTC deribatuak <ul style="list-style-type: none"> Inbertsioa Estaldura 	<ul style="list-style-type: none"> Ordezkatzen duen eskura egindako inbertsio-mailaren hasierako definizioa. Espero den estaldura-eraginkortasuna aurretik mugatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> Ezarritako mugaren eguneko kontrola. Eraginkortasunaren eta espero den korrelazioaren hileko neurketa.
Estaldurarako OTC ez diren deribatuak	<ul style="list-style-type: none"> Espero den eraginkortasuna aurretik mugatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> Kontrapartidaren balioespenaren aldearen zein eraginkortasunaren hileko neurketa.
Bestelako arriskuak	<ul style="list-style-type: none"> Inbertsioaren ezaugarriak, erregulazio-maila eta balioespen askea egiteko aukera. 	<ul style="list-style-type: none"> Inbertsioak dibertsifikatzea. Murriztutako pisua. Jarraipen espezifikoa.

Nolanahi ere den, dagokion aktiboa eskuratu ostean gertatutako rating-aldaketa guztiek ez dute ekarriko, derrigorrean, saltzeko premiarik; non eta merkatu-baldintzek hala egitea gomendatzen ez duten.

VII. ARRISKUAK KONTROLATZEKO PROZEDURAK

Egunero egingo da aurreko atalean ezarritako mugen jarraipena eta kontrola. Aktibo Alternatiboetarako eta Errenta Finkorako ezarritako mugak hileroko kontrolatuko dira.

Ezarritako mugaren bat gainditzen denean, Erakundeak lehenbailehen erregularizatuko du egoera, eta jakinaren gainean jarriko du erakundearen Presidentea. Azken horrek azalpenak emango ditu Gobernu Batzordearen hurrengo bilkuran; betiere, baldin eta desbideratzeak Erakundearen muga % 5 gainditzen badu. Hala eta guztiz ere, Gobernu Batzordeak uste badu muga-gainditzea merkatuaren egoera igarokor baten ondorio izan dela, partaideen onurarako, gainditzea baimendu lezake, egoerak iraun bitartean.

VIII. PLANAREN ARRISKU-MAILA

Baskepensiones Horizontea 2025 Planak, bermatu gabeko errentagarritasun-helburua lortzeko, EBko Estatu-kideek, Autonomia Erkidegoek, Tokiko Erakundeek, eta batik bat likidezia eta erakunde espainiarren Hipoteka-zedulek jaulki edo abalaturako zorrean inbertituko du; nolanahi ere den, beste errenta finko pribatu batean % 25era arte inbertitzeko aukera baztertu gabe, diru-merkatuko gordailuak eta tresnak barne.

Plan honek zer aktibotan inbertitzen duen eta helburu den errentagarritasun-aldian zorroan duen iraunkortasuna aintzat hartuta, Planaren arrisku-maila txikia dela esan liteke.

IX. AURREIKUSITAKO URTEKO ERRENTAGARRITASUN-HELBURUA

Baskepensiones Horizontea 2025 Planak errentagarritasun ez-bermatuaren helburutzat dauka, hain zuzen, aurreikusitako denboraldiaren amaieran (2025eko uztailaren 30a), denboraldiaren hasieran (2015eko urtarrilaren 30a) partaidetzak duen balioarekin alderatuta, % 23,12ko (% 2,00ko UTB) balio-handitzea lortzera bideratutako inbertsio-politika bat garatzetik lortutakoa.